

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Zerbitzua bide publikoan emateko kutxazain automatikoak jarririk jabetza publikoko ondasunak pribatiboki erabiltzeagatik 2019an ordaindu beharreko tasari dagozkion erroldak jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo dira jendaurrean jarrita zerbitzua bide publikoan emateko kutxazain automatikoak jarririk jabetza publikoko ondasunak pribatiboki erabiltzeagatik 2019an ordaindu beharreko tasari dagozkion erroldak, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, hura aztertu eta egokitzen jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa horiek ordaintzeko epea 2019ko irailaren 6tik azaroaren 6ra artekoa izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 8an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE